

III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

ESTATUKO ADMINISTRAZIO OROKORRAK

ADIF-ALTA VELOCIDAD

2018ko abenduaren 13ko Arabako gobernuaren ordezkariordetzako ebazpena non Adif-Alta Velocidad-ek egingo dituen "Gasteiz – Bilbao – Donostiako Abiadura Handiko Lineako Plataforma Eraikitzeako proiektuaren Aramaioko PAET ean ezpondaren euskarria hobetzeko lanetako oinarrizko proiektua. Aramaio–Arrasate zatia. Aramaioko udal mugartea" deituriko lanengatik kudeatzen den 079ADIF1808

Nahitaezko Desjabetze espedienteari buruzko Informazio Publikoa irekitzen den.

Aipatutako proiektua 2018ko ekainaren 27an behar den erara onartua izan eta gero, Adif-Alta Velocidad-ek 2018ko azaroaren 6an nahitaezko desjabetze espedientea irekitzera behartzen du proiektuko lanetarako behar diren lurak erabiltzeko.

Onartze honek onura publikoko deklarazioa eta okupazioaren premia dakartza (irailaren 29ko Trenbide Sektoreko 38/2015 Legea). Beraz, 1954ko abuztuaren 16ko Nahitaezko Desjabetzeko Legearen 52. artikuluan eta 1957ko apirilaren 26ko Arautegiaren bat datozen artikuluetan dauden aginduak aplikatzen dira.

Horri jarraiki, Arabako Gobernuaren Ordezkariordetza honek, nahitaezko desjabetzeari buruzko eskumen eskuordetzearen gaineko Azpiegituretako Idazkaritza Nagusiaren 2015eko ekainaren 12ko Ebazpena betez (2015eko ekainaren 30reko 155. zenbakidun EAO), Gasteiz – Bilbao – Donostiako Abiadura Handiko Linea (Euskal Herriko Trenbide Sare Berria) eraikitzeako trenbide lanei dagokienez, ebatzi du 15 (hamabost) laneguneko informazio publikoa irekitzea, 1957ko apirilaren 26ko Arautegiaren 17. artikuluan ezarritako eran zenbatuta, erangindako ondasun eta eskubideen lur-jabeek eta interesatuta dauden bestelako pertsonak edo erakundeek Ordezkariordetza honi idatziz egokitzen jotzen diren alegazioak egin ditzaten, Nahitaezko Desjabetzeko Legearen 18. zein 19. Artikuluetan eta garatzeko Arautegiaren 56. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz.

Desjabetze-eranskina kontsulta daiteke bai Arabako Gobernuaren Ordezkariordetzaren lokaletan, Vitoria-Gasteizko Olagibel 1kalean - 01071 kokatuta, zein Aramaioko Udaletxean.

Halaber, ondasun eta eskubide eragindako lur- jabeek Udalak horretarako prestatuko duen tokian okupatzearen aurreko aktak egitera deitzea ebatzi da, jarraian zehazten diren egun eta orduetan.

Argitaratze hau ezezagututako interesdunentzat edo helbidea ezagutzen ez dutenentzat jakinarazpentzat hartuko da, urriaren 1ko Administrazio-prozedura erkidegoko 39/2015 Legean aurreikusitako ondorioetarako.

Hala eta guztiz ere, interesdunei aurreko aktak egiteko ekitaldira deituko zaie banakako zitazioaren bidez.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko abenduaren 13a

Azpiegituren idazkari nagusia. BOE 2015eko ekainaren 12ko Ebazpena (2015eko ekainaren 30a). Gobernuaren ordezkariordea
JOSÉ DE LA FUENTE MARTÍN

Ondasun eta eskubideen zerrenda zehatz eta banakakoa

Aramaioko Udal Murgatea

Finka	Polygonoa	Lursaila	Eguno Titulaz	Helbidea	Lursailko Azalera m ² /	Desjabetzea m ² /	Zorra m ² /	Albi Batenako Okupazioa m ² /	Ondasun-tzaera	Aurreko Akten Data	Aurreko Akten Ordua
H-01.0035-0041-C01	6	90077	Aramaioko Udala	Plaza Bxente Gokoetxea Eparantza, 1 01160 - Aramaio Araba	465976	343			Jabari publiko	13/02/19	1800
H-01.0035-0042-C03	6	309	Bergareche Abarrategui, Antonia	Caseta Ligartegi, Untzilia, 8 01160 - Aramaio Araba	3042	1295			Landa	13/02/19	1630
H-01.0035-0047-C03	6	719	Bergareche Abarrategui, Antonia	Caseta Ligartegi, Untzilia, 8 01160 - Aramaio Araba	6992	2022		1563	Landa	13/02/19	1630
H-01.0035-0048-C05	6	180	Bergareche Abarrategui, Antonia	Caseta Ligartegi, Untzilia, 8 01160 - Aramaio Araba	56878	6861		11231	Landa	13/02/19	1630